# Goierritarra

271. zenbakia 2004ko azaroak 19




# MIKEL GARMENDIARI OMENALDIA

## Gabon gaueko koplariak


Kamara digital bat erosterakoan

OLYMPUS

FUJIFILM CustomerCard

12 euroko karga duen errebelatzeko txartela doan

www.fotoetxe.com

FOTOETXE

OLYMPUS

BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BEROGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK

vegasa

BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK




ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307




FREELANDER BERRIA
NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak

EUROLAN 4x4
Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierrirako zerbitzua: ANZIZAR
Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00

LAND ROVER

Freelander Td4 Manuala. Kontsumo konbinatua 7,6 l/100 km. $CO_2$ Isurketak : 205 g/km

# URTE BERRIA EGOITZA BERRIA

**Telefonoa:**
**943-889617**
**e-posta:**
**goierritarra@topagunea.com**

Urtea amaitzerako, Beasaingo egoitza berrian izango du kokaleku berria GOIERRITARRA aldizkariak. Beasainen, Goierriko Hitza-ren ondoan, Nacex parean, Urbialde plaza 7, behean.

Egoitzaz aldatuko bagara ere, GOIERRITARARRArekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia eta posta elektronikoa berdinak izango dituzue.

Beraz, urte berrian egoitza berrian ikusiko garelakoan, Urte Berri on guztioi!

**Goierritarra**
**HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea

**Dorre-etxea, 1**
**124 posta-kutxa ORDIZIA**

**Tfnoa:** 943 88 96 12
**Faxa:** 943 88 27 19
**Posta elektronikoa:**
goierritarra@topagunea.com

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre
**Maketazioa:** Mikel Albisu
**Publizitatea:** Argider Mujika

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:** Bittor Gorria, Garbiñe Garmendia eta Beasaingo Ikastolako haurtzaindegia.

**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
**Tirada:** 7.000 ale
**SSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76

***Goierritarrak** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.*

## AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Bittor Gorria

7. **Errezeta:** Piku lehor eta marrubi puding-a
**Aholkua:** Txupetea

8. **Kate Motzean:** Iñaki Tello

10. **Elkarrizketa:** Ezkio-Itsasoko sagar zuku parteurizatua

14. **Elkarrizketa:** Iñaki Azurmendi

18. **Erreportajea:** Mikel Garmendiari omenaldia

24. **Garai batean...:** Beasainmendiko Gabon gaueko kantariak

26. **Mundutarrak Goierrin:** Etorkinentzako eskuko hiztegia

27. **Denborapasak**










**Goierritarra** Goierriz kanpo jasotzeko tarifak:

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria eta Espainia: | urtean 12 euro |
| Ipar Euskal Herria eta Europa: | urtean 24 euro |
| Europaz kanpo: | urtean 36 euro |

**Goierritarra** diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK
*Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain*

EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia



Bittor Gorria

*Lehenengo Eguberri-gauean bezala, gure artean ere Jesusek ez du tokirik egokieraz jaiotzeko, bere gurasoek ez dute lekurik non babestu, bere etorrerari ez diogu behar bezalako harrerarik egiten...*

# Eguberri-jaietan zorionak ala zoritxarrak?

Datozen egunetan hamaika aldiz esango dugu zorioneko 'Zorionak' hitza... Egun zoriontsu batzuk bizitzeko asmotan...?

Gero eta pertsona gehiago ezagutzen ditut, datozen jaiak mamu beltz eta itsusi bat bezala espero dituztenak: alde batetik, egun gurekin ez ditugun pertsona maiteen hutsunea, bestetik oparien, afarien... zalaparta eta nekea... edo barrutik ditugun arrazoiak... Zergatia argitzea, behar bada, zulotik ateratzeko lehenengo pausoa litzateke.

Hona nire proposamena: 'Eguberri' hitza eta jaia eta berarekin lotura duten: Olentzaro, Erregeak... eta abar ezabatu.

Ez al litzateke nahiko: "Urte Bukaera" eta "Urte Hasiera", bi egun horietan: jan, edan, ospatu... eta ondoren... heldu betiko martxari!

Noski, pertsona, famili edo talde bakoitzak beti izango genuke aukera gure sinismenaren erara gertakizun pozgarri eta salbagarri hauek ospatzeko...

Izan ere, lehenengo Eguberri-gauean bezala, gure artean ere Jesusek ez du tokirik egokieraz jaiotzeko, bere gurasoek ez dute lekurik non babestu, bere etorrerari ez diogu behar bezalako harrerarik egiten...

Orduan bezala, gaur ere badira salbuespenak: hainbat pertsona xume eta apalak... (ezagutzen al dituzu?)

Gure munduko ongizate "ostatuak" beteta daude; ez dago lekurik ate joka datozen hainbesterentzat.

Gure kaleetan dabiltza "ostatu bila", "ate joka", hainbat transeute, atzerritar, etorkin...

Hemen dabiltza ezkondu nahian, prezio erosoko etxebizitza bila hainbat gazte...

Hemen dabiltza "ate joka" emakume alargunak beren pentsio murriztuak duinagoak izan daitezela eskatuz...

Hemen dabiltza "ate joka" 'Bista Alai' kaleko bizilagunak duela hiru urte beren bizilekutik irten behar izan zutelako.

Hor dabiltza enpresarien ateetan "ate joka", lan bila hainbat langile...

Hor eta hemen dabiltza gure "ongizate ostatuko" ate joka beste herri, arraza edo erlijio batekoak direlako...

Beste batzuek ihes egin behar izan dute edo epaileen aurrera joan beren ideiengatik mehatxuak hartzen dituztelako.

Bada "ostatu" honetan sartu ezin denik: dokumentaziorik ez dutelako, ohitura "arraroak" dituztelako.

Behin eta berriz, Eguberriak direla, eta Jainkoak gure pentsakerak eta jarrerak aldatzera deitzen gaitu. Bera gure artean dugula sinetsi dezagun eta gure "ostatuan" onartu: pertsona guztiengan, gizaseme eta emakumeengan, hurbilekoengan eta urruti uzten ditugunengan eta beste era batekoak izan nahi dutenengan nahiz eta niretzat arbuiagarriak gertatu...

"Beste mundu bat posible da". Honela oihukatzen dute milioika pertsonek, 2002ko urtarrilean Porto Alegren 'Munduko Forun Soziala' ospatu zen ezkero. "Beste mundu bat posible da" slogan hau itxaropenaren eztena da eta Biblian irakur dezakegun zenbait esaldien oihartzuna dirudi.

Belenen jaio zen Jesusen Berri ona hori da: bestelako pertsona izatea posible dela; gure artean, herrien artean, enpresari eta langileen artean, agintari eta herritarren artean, famili barruan... bestelako hartu-emanak hobeak, gizatiarragoak, atseginagoak... izan daitezkeela... hau da, borrokatu eta lortu behar ditugula; horretarako, zure eta nire ahaleginak beharrezkoak direla.

Horregatik dizuet "Zorionak!", ateak ez daudelako hertsiak; irtenbidea badugulako.

Eguberri on!
Arantxa
Lentzeria
J. M. Barandiaran, 3
ORDIZIA
☎ 943 88 76 1

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi!
Aranburu
OINETAKOAK
☎ 943 880 127 Kale Nagusia,36 BEASAIN



innova
barne diseinua
Zure etxea jazteko osagaiak.
%5eko eta %10eko deskontuak osagaietan 2005/01/07ra bitartean.
ezkiaga etorb. z/g 20200 beasain gipuzkoa t.f. 943 805 316




BARANDIARAN
Zeramikak
DISEINUAK
PROIEKTUAK
BAINUAK
SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

**Iraunkortasunaren 12 irizpideak:**

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundea.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean.

# 9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundea

Gizarte berdintasuna eta justizia nahitaezko baldintza dira iraunkortasuna lortzeko. Askotan ingurugiroaren babesa pobrezia gainditzeko traba bat bezela ulertu da. Errealitatea beste bat da, biziraupenerako bideak mantentzea ezinezkoa da oinarrizko baliabideak defendatzen ez badira (lurrak, haziak, basoak, larreak, arrantzarako guneak...).

Ondasunen banaketa juxtu bat lortzea garrantzizkoa da helburu horretarako. Txiroenek baliabide naturalekiko menpekotasun handia dute beraien biziraupenean, hauek kontserbatzea beraientzat behar bat delarik. Aberatsenek aldiz, baliabide hauen kontsumoa eta hondakinen sorrera handiagotzen dute. Beraz, aberastasunen banaketa justu batek kontsumitzaile handienon aberastasuna gutxitzea eskatuko luke.

Berdintasunak lurralde, herri edo auzoen arteko desorekarekin bukatzea eta gizarte, ekonomia eta biztanleen arteko desberdintasunak gainditzea suposatzen du. Herri baten garapenean talde baztertuenak kontutan hartu beharko lirateke (umeak, langabetuak, adinekoak, ezinduak, etorkinak,...); era berean txirotasunarekin bukatzea izan beharko litzateke ardura nagusinetakoa.

Bestetik, bazterketa edo desberdintasun gertaerak askotan herrien gune edo auzo zehatzetara mugatzen dira. Hauek gainontzeko auzoekiko desabantailan egotean, euren bazterketa areagotu besterik ez da egiten, herriko hainbat baliabideetatik kanpo geratuz (ekonomikoak, kulturalak, hezkuntzakoak, komertzialak...)

***Agintariei: "Erabaki bat hartzean, eduki ezazue begiaurrean ordurarte topatu duzuen gizon txiroenaren irudia, eta galdetu iezaiozue zuen buruari erabakiak lagunduko ote dion. Erantzuna baiezkoa bada erabaki hori hartu zalantzik gabe"***

***Gandhi***



## Ba al dakizu...?

Pobrezia desagertzetik oso urrun dago gaurko munduan, herrialdeen biziraupena eta lurrarena arriskuan jarriz.

✔ Bost pertsonatik bat pobrezia baldintzetan bizi da. Txiroenak egunean dolar batekin biziraun behar du.

✔ Munduan orain dela 50 urte baino txiro gehiago dago. Pobrezia proportzionalki gora doa Afrika, Hego-Amerika eta baita industrializaturiko herrialdeetan ere.

✔ Munduko 50 herrialde txiroenak munduko biztanleriaren %20-a hartzen dute, eta soilik munduko diru sarreren %2 dute.

✔ Diru sarreretan buru diren munduko biztanleen %20, diru sarreren %83-a jasotzen dute.

goiklinik
osasun zentroa

Dietetika eta Nutrizioa ............ Tel.: 636 21 82 40
Psikologia eta Psikomotrizidadea ... Tel.: 656 76 10 40
Pedagogia eta Logopedia ......... Tel.: 616 24 15 26
Podologia ..................... Tel.: 635 00 66 30

AndreaMari, 11 - 2. A (Notaria zaharra) - BEASAIN

## SUKALDEAN

# Piku lehor eta marrubi puding-a



**Garbiñe Garmendia**
Etxe Zuri sagardotegia
Olaberria

**Osagaiak:**

- Litro 1 esne.
- 6 goilarakada azukre
- Limoi azal zati bat.
- Kanela adartxo bat.
- Karameloa egiteko azukre apur bat.
- 3 goilarakada marrubi mermelada.
- 100 gr. philadelphia gazta.
- 5 piku lehor.
- 6 arrautza.
- Ron txorrotada bat.

Lehenengo esnea jarri berotzen, azukre, limoi azal eta kanelarekin.

Berotzen ari den bitartean, karameloa egin eta puding moldean bota.

Bestalde, arrautza, gazta, pikuak, rona eta mermelada turmixean xehatu. Azken nahaste hori berotu dugun esnea bota, nahastu eta moldera itzuli.

Maria-bainuan, 160 gradutan aurrez berotu dugun labean, 40 bat minututan gutxi gorabehera egiten da.

Jateko orduan, esnegaina eta marrubi mermelada pixka batekin apaindu daiteke platera.

# Txupetea

Haur batzuk inoiz erabiltzen ez badute ere, beste batzuk ezin dute txupeterik gabe egon. Txikiak direnean normala da egun guztian berarekin egotea. Gainera, on egiten die, kontsolatu egiten ditu, laguntasuna ematen die... beraientzat maskota bat da.

Hala ere, lehenengo hortzak ateratzen zaizkienean, egunez erabiltzeari utzi behar diote, lo egiteko bakarrik erabiliz, aho arazorik izan ez dezaten. Hoberena, urtebete inguruan uztea izango litzateke. Hau, ordea, zaila da eta batzuk bi urterekin ere erabiltzen jarraitzen dute.

Pixkanaka hasi behar da txupetea kentzen, baina anai-arreba txiki bat izan berri badu, bizilekuz aldatu bada edo haurtzaindegira joaten hasi berri bada, haurra egoera berrira egokitzen denerako utzi beharko dugu eginbehar hau. Pazientzi handia behar da, ez baitugu egun batetik bestera lortuko.

Egunean zehar, lasai dagoenean kentzen hasiko gara, pixkanaka txupeterik gabeko tarteak luzatuz. Horrela, urduritzen den unetan edo lotarako momentuan bakarrik erabiltzera iritsi arte. Lo hartzen duenean ere kendu egingo diogu, lo dagoenean txupetea sentitzearen ohitura galtzen joateko.

AHOLKUA




Beasaingo Andramendi Ikastolako haurtzaindegia
www.andramendi.com

Bere panpinei ere txupetea kendu beharko genieke, hauek ikustean berearekin ez gogoratzeko. Beste aukera bat, tetinan labana batekin ebaki batzuk egitea da, horrela, ez zaie hain atsegina egingo txupetea ahoan edukitzea. Egun batzuen buruan, eta ia ahazturik duenean, berari emango diogu bere txupetea, handia dela esanez berak zakarrontzira bota dezan.

Txupetea erabiltzeari utzi ondoren hatza txupatzeari ekiten dioten haurrak ere badira, eta hau ez da batere onuragarria beraientzat. Horregatik, txupetea utzi ondorengo egunetan, gertutik zaindu beharko dugu haurra eta hatza txupatzera doala ikustean, eskuak okupatuko dizkion zerbait emango diogu: margoak, jostailuak.... baina hau dena errietarik egin gabe!

EUSKAL LIBURU,
CD, BIDEO, JOKO eta KORRIKA 14 MATERIAL
AZOKA BEASAINEN

**NOIZ:** Abenduaren 24ra arte

**NON:** Kale Nagusia 33 - BEASAIN

**ORDUTEGIA:**

**Goizez:** Astearte, larunbat eta igandetan 10etatik 1era.
**Arratsaldez:** Egunero, 5etatik 8etara.

ANTOLATZAILEA:
GOIZTIRI
aek

LAGUNTZAILEA:
Beasaingo Udaleko
Euskara Batzordea

Iñaki Tello, Basetxea lehiaketako lazkaotarra



# “Bizitza lasaiago hartu behar dela ikasi dut”

**Zertara joan zara Basetxea lehiaketara?**
Donostian agentzia artistiko batean nabil, interpretazioa eta bikoizketa ikasten. Esketx txikiak egiten hasia naiz Agentziakoek esan zidaten agian ondo etorriko zitzaidala telebistako bidea irekitzeko eta horregatik joan nintzen. Pertsonalki, esperientzia berri bat probatzera ere joan naiz.

**Zer espero zenuen han aurkitzea?**
Banekien hotza eta gosea pasatu behar nuela. Jende gutxi izango ginela, elkarbizitza... ezustean ez nau ezerk harrapatu.

**Zer ikasi duzu?**
Bizitza lasaiago hartu behar dela, egunean-egunean bizi behar dela.

**Kamararekin zer moduz moldatu zara?**
Hasieran, kamarak hotzak ziren baina azkenerako gure konfidenteak ziren. Gure arteko harremanetatik kanpora zeuden eta momentu askotan beste gai batzuei buruz hitz egiteko behar izaten genituen.

**Gogorrena zer izan da?**
Garbitasuna bera, hainbeste egunetan dutxatu gabe, beti arropa berdinekin. Gosea eta hotza ere gogorra izan dira. Elkarbizitza ere bai.

**Zenbat kilo galdu dituzu?**
8 kilo.

**Etxera itzulitakoan egin zenuen lehenengo gauza:**
Jan eta lo. Denbora gutxian, galdutakoa errekuperatu nahi izaten da, eta nahikoa gaizki egon naiz tripetetatik.

**Pertsonengan gehien estimatzen duzun dohaina?**
Adiskidetasuna.

**Zerk sortzen dizu barrea?**
Barre zailekoa naiz. Txiste oso on batek.

**Eta negarra?** Bakardadeak.

**Bizio bat**: Lo egitea.

**Zaletasun bat:** Bidaiatzea.

**Tentazio bat:** Neskak.

**Gustuko jaki bat:** Mariskoa.

**Edari bat:** Garagardoa.

**Lazkao:** Herri bat.

**Goierriko txoko bat:** Lazkao.

**Oporretarako leku bat:** Australia, Indonesia, Zeelanda Berria...

**Amets bat:** 150 urtera iristea.

**Olentzerori zer eskatu diozu:** Ezer berezirik ez, egunerokotasunean behar dudan zerbait.

**Gabonetarako plan bat:** Eskiatzera joatea.








amatriain
f r u t a k
Zorionak eta eguberri on!!!
Jose de Lasa, 9
20210 Lazkao Gipuzkoa
943 160 190
Zurbano, 22
20214 Segura Gipuzkoa
943 801 177


SASIETA
MANKOMUNITATEA
Zorionak eta urte berri on !!
SASIETA MANKOMUNITATEAK eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.
2005ean ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.
Eta gogoratu, aurten ere
gabonetako PINU BILKETA egingo dugula ondoren ongarri bihurtzeko.
Parte har ezazu gure lehiaketan!
Ikus ezazu Goierri Telebistako gure erreportaia eta erantzun galderari.
Sari goxo-goxoa.

# Ezkio-Itsasoko sagar zuku pasteurizatua



*"Sagarrari esker herriko 21 familia elkartu gara"*

**Ezkio-Itsasoko Haristizabal baserrian sortu bazen sagar zukua egitearen lehenengo ideia, laster egin zuen bere Baserria Bizirik elkarteak. Herriko 21 baserri elkartu eta sagardoa edo sagar zuku pasteurizatua egiteko azpiegitura prestatu dute. Aurtengo urrian jarri dute esperientzia martxan eta 9.000 litro produzitu dituzte. Inguruan, ez dago sagar zukua pasteurizatzen duen bestelako esperientziarik. Xabier Akizuk eman digu ekimenaren berri.**







SUTAN
TXIMINIAK
EGUR BARBAKOAK
ESTALDURAK
(Harlanduak-simulazioa)
Mugitegi industrialdea, B bidea, 6
URRETXU
665 737 302



## Agerrezabalen

Hasierako asmoa makineria erremolkean hartu eta tokiz toki mugitzea bazen ere, Agerrezabalgo nagusiak lekua utzi du proiektua gauzatzeko.

## Inbertsioa

42.000 euroko inbertsioa egin behar izan dugu. Kide bakoitzak 200 euro jarri behar izan ditu.

## Makineria

Dolare txiki bat jarri dute. Inoren laguntzarik gabe, norberak norberarena zukutzeko aukera ematen du. "Bi hesi dituenez, horrek izugarri errazten du, bat zapaltzen ari den bitartean, bestea betetzen aritzea".

Prentsatik ateratzen den zukuarekin sagardoa edo zukua egiteko aukera dago. Sagardoa egin nahi duenak, etxera eramaten du eta han jartzen du fermentatzen. Pasteurizatu nahi duenak, bonba batekin depositutik hartu eta pasteurizatzailean sartzen du. Oso denbora gutxian 80 gradura arte igotzen du zukua eta zuzenean depositu batetik pasata, botilatan sartzen da. Botilak itxi eta prozesua ondo egiten bada, bi-hiru urte arteko iraupena duen zukua lortzen da. "Zaporea ez du galtzen eta ezer erantsi gabe, oso zuku naturala izaten da. Sagarrak dituen propietate gehientsuenak kontserbatzen ditu, 2 urtean mantentzeko moduan".

**Nola sortu zen ideia?**

Hiru bat urte izango dira zukua aipatzen hasi ginela. Baserrietan, beste aktibitate gehigarri bat nola sortu zitekeen pentsatuta sortu zen sagar zukuaren gaia. Alde batetik, diru iturri bezala, baina beste aldetik, baserriaren nortasunari pixka bat eusteko. Lehen esne-behiak kendu ziren, orain larre-behiak, ardiak... zelaiak gutxitzen doaz eta pinua gero eta gertuago daukagu. Sagasti gehiago jartzeko proposamena egin genuen baina oraingoei errentagarritasun gutxi ateratzen zitzaiela eta gehiago jartzea ez zen ikusi. Orduan, oraingoari probetxua ateratzeko zukuaren gaia atera zen. Dagoenari probetxurik ateratzen ez badiogu nekez bultzatuko dugu sagasti berriak jartzea. Beraz, bide horretatik jarraitu genion, ea jendeak etekina ikusi eta pozten den eta sagarrondo berriak landatzen dituen.

**Merkaturik ba al du sagar zukuak?**

Merkatua badago, baina eman dugun lehenengo pausoa, norberak duen sagarraren etekina norberak aprobetxatzea. Oraingoz ez da planteatzen industria mailan eta guztia saltzeko. Autokontsumorako da.Gainera, oso zaila da osasun erregistroak-eta lortzea zukua merkaturatzeko. Instalazioetan eta makinerietan baldintza zorrotzak jartzen dituzte. Hasierako pausoa eman dugu, orain teknika dominatu eta aurrerago ikusiko dugu. Jendea hasi zaigu non saltzen dugun galdetzen, horrek berorrek ere ekarriko du behar bat. Komertzializaziora bideratzeko eskariak ere hasi zaizkigu iristen, Goimenetik adibidez. Proposamena lantzen ari gara. Sagardoa baino askoz ere garestiago saltzen ari gara sagar zukua eta merkatua badauka, dudarik gabe.

**Aurten egin duzue lehenengo esperientzia. Zer egin da gehiago, sagardoa ala sagar zukua?**

Sagar zukua. 9.000 litro egin dira eta horietatik 6.500 litro pasteurizatu egin dira. Jendeak sagar zukua probatu duenean, ideiaz aldatu eta zukua egin du. Datorren urtean nik uste gehiago egingo dela.

**Elkartekoentzako bakarrik irekita dagoen zerbitzua al da?**

Momentuz 21 kide gaude eta 30 kiderentzako lekua legoke. Bakoitzak bere sagarra txikitu eta sagardoa ▶







# Pasteurizatu -tako zukuak 2-3 urtean irauten du

egiteko aukera daukagu. Geure muga dolarea da. pasteurizatzailea ez. Datorren urteari begira pentsatzen ari gara, dolarea, herrikoentzako bakarrik mugatzea eta pasteurizatzailea libreago uztea. Ondo antolatuz gero, posible litzateke inguruko zukua pasteurizatzea.

**Herritarrek zer moduz hartu dute ideia?**

Jendea oso pozik dago. Hau guztia, nahiz eta ideia Haristizabal baserritik abiatu, Baserria Bizirik Elkarteak landutako proiektua izan da. Jendearen parte hartzea oso polita izan da. Garai bateko auzolanaren berpiztea izan da.

Gure helburua da pinuak ikusten diren sailetan, baserri inguruetan batez ere, berriz ere beste nortasun bat, beste goxotasun bat, beste probetxu bat ematea. Sagastiak izan daitezke. Azkenean baserriari beste etorkizun bat bilatzen joan gaitezen.

**Proiektu honek lagundu al du herritarrak elkartzeko?**

Bai, asko egiten du. Beste gai batzuk bazterrean utzi behar izan ditugu baina horrelako proiektu batekin beste animo bat hartzen da. Horrelako herri txiki batean gainera, 21 familia elkartu gara sagarraren bueltan.

**Laguntzarik jaso al duzue?**

Goimenek %60 lagundu du eta Ezkio-Itsasoko Udalak %20. Garaia da Udalak ere baserriarekin konprometitzeko. Udalak ez daude espaloiak edo industrialdeak egiteko bakarrik. Ondasun ikaragarria da baserria eta nahiz eta dirutan hainbeste ez izan, nortasuna, edertasuna, osasuna... oinarri-oinarrizkoa da baserria. Euskarak ez du dirurik ematen baina beharrezkoa da. Baserriak agian ez du dirurik emango baina euskara bezain beharrezkoa da euskal nortasunerako. Euskararen bidez gure izaera adierazten dugun bezala, baserriaren bidez, naturarekiko lan egiteko era adierazten du. Gaur egun pena da baserriari ustiategia deitzea. Lortu behar dugu berriz, baserria baserria izaten, euskaldunok euskaldunak izatea jarraitu nahi badugu behintzat.

**Duela bi urteko Goimen saria lortu zenuen proiektu honekin.**

Bai, niretzat, babes bat izan zen eta ideia interesgarri bezala ikusi zen. Ematen duten saria gainera, ideia hori gauzatzeko baliagarria izan da.



*Sagar zukua probatu nahi duenak, Ezkio-Itsasoko baserrietan izango du aukera.*

## Baserria Bizirik Elkartea

Sagar zukua pasteurizatua eta sagardoa egiteko dolarea eta pasteurizatzailea jartzea izan da Ezkio-Itsasoko Baserria Bizirik taldearen lehenengo proiektua. Sagar zukuaren egitasmoa aurreko lerroetan argitu ondoren, Baserria Bizirik taldearen beraren berri ere jakin nahi izan dugu.

Xabier Akizuk gogoratu duenez, duela 16 bat urte taldetxo bat hasi zen mugitzen Ezkio-Itsasoko udaletxean, "herri txikien gainbehera bazetorrela ikusita, administrazioaren aldetik herri txikiei eusteko zer egin zitekeen ikusteko. Goierri Garai bezala ere lan egiten hasi ginen eta garai horretan bertan, Goimen sortu zen. Duela urte pare bat, Udaletxeko batzorde bezala sortu beharrean, lan taldean funtzionatzen hasteko erabakia hartu genuen, Udalean lan taldean garatutako proposamenak eta abar aurkezteko. Herri mailan zerbait egiteko asmoarekin, Udalak beti edukitzen ditu baserriari begira egotea baino gauza garrantzitsuagoak edukitzen ditu".

Baserria Bizirik elkartean 20 kide daude. 30era iristea dute helburu. Sagar zukuaren proiektuaren bueltan, sendotu egin da harremana eta lanerako indar berriz ditugu. Beste proiektu batzuk ere badarabiltzate buruan. Plaka fotovoltaikoen eragina aztertu eta plan zehatza egitea, sagar zukua merkaturatzeko bideak aztertzea...


MULTIOPTICAS
Gabonetako Opariak
P.S.P.: 50€
Gabonetan 42€
P.S.P.: 45€
Gabonetan 33€
P.S.P.: 45€
Gabonetan 35€
Zure Varilux® PROGRESIBOAK egokituta,
opari hau:
Meteorologia estazio zoragarria
ESSILOR
Crizal ALIZÉ-rekin eguna garbiago.
Erreflexu-kontrako tratamendu berria, ez daukazu garbitu beharrik.
Ez metagarria beste eskaintza batzuetara.
J.M. Barandiaran Enparantza • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA
GAES
Entzumen Zentruak
TOLOSALDERAKO ENTZUMEN ZENTRU BAKARRA
San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 71
TOLOSA
Centros Auditivos GAES
DOHAKO ENTZUMEN AZTERKETA
0%ko interesa, sarrerarik gabe
12 kuota interesik gabe
R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.
GOIHERRIKO LAGUNTZAILEAK:
MULTIOPTICAS
ORDIZIA
J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA
ARGI OPTIKA
Nafarroa Etorbidea, 14
Tel.: 943 88 31 10
BEASAIN

*Iñaki Azurmendi, 24 urtez Mexikon eta EHNA eskuan duela itzuli da:*

# "Euskal Herri osoan zehar euskaldun libre bezala bizitzera etorri naiz"

**Duela 24 urte Ordiziatik alde egin behar izan zuen Iñaki Azurmendi ordiziarrak, Espainiako poliziarengandik eta justiziatik ihesi. Harrezkero Mexikon bizi izan da. Bertan osatu du familia. Duela 6 urte bere 2 semek egin zuten bezala, azaroaren bukaeran, jaioterrira itzuli zen Azurmendi, "Euskal Herri osoan zehar euskaldun libre bezala bizitzera etorri naiz", dio. EHNA edo Euskal Herriko Naziotasun Atormena du bere nortasunaren adierazgarri.**



**24 urteren ondoren berriz Ordiziara itzuli zara.**
Maiatzean etorri nintzen lehenengo Ordiziara, hilabete egin nuen. Berriz Mexikora itzuli eta orain, azaroaren bukaeran etorri naiz, hemen gelditzekotan.

**Beti Mexikon egon al zara? Zein baldintzatan bizi izan zara?**
Beti bizitza normala egin dut, normala kakotx artean. Batzuetan egoera ona zen, lasaia, beste batzuetan okerragoa... beti egoera berezi batean. Hasieran joan ginenak beste legalitate baten barruan bizitzeko aukera izan dugu. Gerora gauzak aldatu egin ziren.

**Zergatik erabaki orain duzu berriz Ordiziara itzultzea?**
Lehenengo gauza nire herria delako. Bere garaian Euskal Herri aske batean euskaldun bezala bizi nahi izateagatik alde egin behar izan nuen. Gaur arrazoi berdinek ekarri naute, nire herriarekin dudan konpromisoa berretsi eta EHNA-rekin bizitzeko konpromezua hartu dudanean. Euskal Herri osoan zehar euskaldun libre bezala bizitzera etorri naiz, topatu ditzazkedan muga guztien gaindik EHNA da eskuartean dudan tresna bakarra. Euskal Herriaren alde apustu egitera etorri naiz. ▶

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA
Promozioa:
auto ordua 12 euro
Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76




K.A.K.O
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
✆ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN

**Hainbeste urteren ondoren nola ikusi duzu Ordizia?**

Kaxkarra iruditzen zait, geografia mailan. Mexikon hiriburuan bizi izan naiz eta 25 milioi biztanle bizi dira. 42 kilometroko kale bat ere badago... Bestela ez dut asko aldatuta ikusi, hemengo jendearekin, harreman zuzena eta estua izan dut eta ez dut aldaketa handirik ikusi.

Ordiziarren artean ere ez dut aldaketa handirik somatu. Politikoki, batzuk betiko martxan jarraitzen dute. Belaunaldi berriak sortu dira...

**Politikoki nola ikusten duzu Euskal Herria? Asko aldatu da?**

Aldaketa handirik ez dut ikusten baina politikoki egoera interesgarriagoa ikusten dut. Aldaketa bat nabaritzen dut. Ezker abertzalean, eta hori da gehiena interesatzen zaidana, gaur egun proposamenak egiten direla, aurrera egiteko proposamenak.. Azken urteetan proposamenak egiten ari gara. Besteak zer ari dira egiten? Beti, etikako lezioak ematen. Lokatzetan leporaino sartuta daudenak guri etikako lezioak ematen? Alde horretatik, ez dut ezberdintasunik ikusi. Jende honek beti berdin egin du, bai izen batekin edo bestearekin, beti gauza berdinak esaten ari dira.



**Batasunak Anoetan egin zuen proposamenaz zein iritzi daukazu? Baikorra al zara?**

Proposamena oso interesgarria da baina ez daukat ilusio handirik. Lizarra-Garazi hor izan genuen eta atzera bota zen... Ilusio handiegirik ez daukat, besteei mugitzeko asmorik ez diedalako ikusten. Oso ondo daude dauden lekuan eta beraien lekua defenditu egiten dute. Etika eta moralaz beti hitz egiten dute gure aurka baina beraiek ez dira mugitzen. Hala ere uste dut proposamena ona dela eta aurrera jarraitu behar dela. Ezin gara eserita gelditu. Beraien eskuetan dago mugitzea ala ez, gu mugitu gara. Gustatuko litzaidake beste zerbait esatea baina ez zait iruditzen mugituko direnik.

> **Batasunak Anoetako belodromoan egindako proposamena oso interesgarria da baina ez daukat ilusio handirik, besteei mugitzeko asmorik ez diedalako ikusten. Oso ondo daude dauden lekuan eta beraien lekua defenditu egiten dute.**

**EHNArekin bakarrik bizita oztopo bat baino gehiago aurkituko dituzu.**

Momentuan ez dut oztopo bakar bat bera ere izan. Beste jende bat ere bizi da EHNArekin bakarrik eta haiek diotenez, bizitza pertsonalean dituzte arazo gehien. Lana aurkitzeko, etxebizitzak erosi edo alokatzeko... Hala ere niretzat apostua hasi besterik ez da egin beraz oraindik goiztxo iruditzen zait ezer esateko, eta agian bizilagun ditudanak izango ditut parean ez dakit! Denborak argituko ditu nire kezkak.

**Zergatik erabaki duzu justu momentu honetan itzultzea?**

Euskal Herrian momentu bitxi bat bizi da, pausoak emateko aukera eta bideak ikus daitezkeen momentuan. Nik EHNArekin bizitzeko apostuaren bidez ere nire aportazioa burutu nahi diot oraingo uneari eta noski aurrerantzko bultzada eman nahi diot.

Euskaldunak gara ez gara inor baino gehiago ez eta gutxiago! Eta gure herrian EHNArekin bizitzeko apostuak ate berriak ireki ditzake. Borondatean datza koska.

**EHNA egin eta erabiltzea garrantzitsua da beraz?**

Ur tanta batek ez du indarrik baina bai olatu batek. Maiz euskaldunok zerk batzen gaituen ahaztuta ga- ▶


Xikel
Eguberri on!
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA
☎ 943 16 16 06 - 619 770 600
Urdaneta, 41 ORDIZIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"
K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58
Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79
Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44
OKINDEGIA GARIONA

biltzala ematen du. Nire ustez inoiz ez dugu baimenik izango garen bezala bizi ahal izateko, akaso baimena behar al da euskaldun izateko?

EHNArekin Euskal herria badela eta bere etorkizuna erabakitzea bertako herritarroi dagokigula aldarrikatzen dugu, ez besterik. Hau da batzen gaituena, herri bat garela. Hemendik dei egin nahi nieke herritar guztiei, beren ur tantan gauzatu dezaten, EHNA egin dezaten ondoren guztion artean olatu handi eta indartsu bat osatu dezagun EHNA erabiliaz. EHNA egin eta erabiliz, bizi gaitezen euskal herritar gisa.

**Dinamika horretan sartzeko erabakia zaila izan al da?**

Erabakia erraza izan da, zailena hemendik aurrerakoa izango da. Hala ere apustu hau ez dago nire baitan bakarrik. Lehen esan bezala guztiok egin dezakegu bultza.

**Gabon bereziak izango al dira aurtengoak?**

Niri sekula ez zaizkit gabonak gustatu baina aurten bereziak izango dira, familia osoa elkartuko garelako.

**Etxekoentzat ere opari ona.**

Urrezko ezteiak ospatu dituzte eta beti galdetzen zidaten ea egun horretan hemen izango nintzen. Eta beti baiezkoa erantzuten nien. Eta hala izan da, hemen izan naiz. Etxeko gazteena naiz eta beti etxeko umea izan naiz. Beraientzat oso garrantzitsua izan da eta niretzat ere bai, berriz lasai ikustea. ■



## Ongi-etorria abenduaren 18an

Iñaki Azurmendiren jaioterrian, Ordizian, ongi-etorria eskainiko zaio abenduaren 18an, arratsaldeko 6,30etan hasita. Ordu horretan, herriko bi leku ezberdinetatik, bi zutabe abiatuko dira. Zutabe batean, EHNA egin dutenak joango dira eta bestean Oargi gazte elkarteko kideak, Iñaki Azurmendi bertan dela. Trikitixarekin Joxe Migel Barandiaran plazaraino joango dira eta bertan elkartuko dira bi zutabeak. Arratsaldeko 7etan, Plaza Nagusian omenaldia eskainiko zaio eta ondoren herriafaria izango da.












# Ordiziako Tabernarien partetik

## *Eguberri zoriontsuak guztioi!*

KISKA
Taberna

ORLEGI
TABERNA

ILUNPE
PUB
KAFETEGIA

Taberna
SARRI




OIANGU
TABERNA

OLANO
TABERNA

Martinez
Jatetxea

HERRIKOA TABERNA

Jatetxea
HAIZEPE

INPORTATUTAKO GARAGARDO ETA ROCK MUSIKA
PUB
KIRKIL
ORDIZIA
943 08 59 66

Amonane
Pub
Ordizia

ALDASORO
Taberna

MIAMI
kafetegia
Etxezarreta kalea

elkano 11, ORDIZIA * 943 161 958
www.galeon.com/sugaar
sugaar
jai zoriontsuak denoi!

SATORRA

OSTADAR
kafetegia

Pottoka
KAFETEGIA



# Mikel Garmendia aktore ordiziarrari omenaldia egin dio ETB-k

*'Olentzero Begi Gorri' ikuskizuna Eguberri egunean emango da telebistaz*

**Abenduaren 3an Donostiako Kursaalean grabatu zen ikuskizuna. Bertan musika, dantza eta antzerkia izan ziren osagai nagusiak, baita Mikel Garmendiaren bizitzaren kontakizuna irudi eta soinu muntaiaren bidez. Ordizian 'Kutturru' bezala ezagun den aktorearen bizitzari errepasoa egin nahi izan diogu orri hauetan, bere biografia, Ordizian omenaldiaren aurkezpenean esan zituenak eta 1995-eko martxoan GOIERRITARRAK egin zion elkarrizketa oinarri hartuaz.**






Urtero ETB-k espektakuluarekin zer ikusia duen pertsonaren bat omentzen du 'Olentzero Begi Gorri' ikuskizunarekin. Indarrean daudenean jendearen txaloak jasotzen dituzte, baina beheraka doazenean edo profesioa uzten dutenean ahaztu egiten direlako egiten da omenaldi hau. Aurtengoan Mikel Garmendiaren txanda izango da. "Mikelek 3 desio bete ditu antzezle lanetan hasi zenetik lana izan du, kritikaren txaloak bereganatu ditu eta publikoaren berotasuna ere oso gertutik sentitu du", adierazi zuen Joxe Mari Otermin, ETBko programazio zuzendari ordeak eta... "Bai, oso zoriontsua izan naizela ez dago ukatzerik", esan zuen ondotik Mikelek. "Bederatzi urtez, Goenkaleren bidez, gure eguneroko bizitzaren paisaiaren zati bat osatu du. Egunero, aterik jo gabe, gure sukaldetan sartu da. Hori horrela izanda ETB omenaldi hau egitera behartua ikusten zen", amaitu zuen Oterminek.

### Berandu hasitako ofizioa

1982an sortutako Antzerti eskolan sartu zen 36 urte zituela. 30 urterekin Donostiara bizitzera joan zenetik 'biajante' moduan ari zen lanean. "Bizi guztia horrelako baten zain egon ondoren", duda asko izan arren lana utzi eta antzerki eskolan sartu zen.

Duela 10 urte garbi zuen "Kutturru'k segurtasun gutxiko ofizioa dela berea "Gurean horrela funtzionatzen du: zaudenean zaude, gero zutaz ahaztu litezke. Estatuan badira ni baino askoz curriculum handiagoa duten aktoreak langabezian. Txanpa joan zaie eta beste bat ailegatu arte hor egon behar zain". Osasun ezintasunak direla eta lana alde batera utzia badu ere, ikusleak beretaz ez direla ahaztu adierazten du omenaldiak.

Orain 59 urte Ordiziako 'Beko Etxen' jaioa, alboko frontoian, Arboledan eta Txakurtxulon pasa zuen haurtzaroa. Bizitzako lehen 30 urteak jaioterrian eman zituen 'Kutturru'k. CAF-en eta bere etxeko Cantabrico arrandegian lan egin zuen. 18 bat urterekin herriko hainbat lagunekin antzezlan pare batetan parte hartu zuen, berarekin aritu ziren: Jon Etxezarreta, Luxio Lekuona, Josinazio Mujika, Juanita Lasa, Senperena ahizpak... Baina, ondorenean albo batera utzi zuen aktore mundu hori.

### Telebista, zinea, antzerkia...

Denetik egindakoa da Mikel Garmendia. Telebistan hainbat eta hainbat saiotan aritu izan da, nabarmenenak: 'Bi eta bat' ▶



## Goenkaleren arrakasta

Omenaldiaren aurkezpenean ezinezkoa izan zen Mikel hain ezagun egin duen Goenkale telesailari buruz ez hitz egitea. "Niretzako Goenkale dena izan da: giro ona, etxean estimatua, pertsonaia ere aktoreen arabera moldatu dute, egunero aritzea oso erronka polita izan da".

1995. urteko martxoan GOIERRITARRAri eskainitako elkarrizketan Goenkaleren hasierari buruz zera adierazi zuen: "Ni beldurtu egin nintzen, halako gauza erraldoia, hemen sekula egin ez zena, 200 kapitulukoa... Hau zer izan behar da, non sartu naiz? Baina ezetzik ezin nuen esan, hemendik bizi naiz, esplikatu iezaiozu etxekoandreari beste lan bat utzi duzula. Derrepente konturatu ginen 'bonba' bat geneukala esku artean." Denbora aurrera joan ahala 'bonba' hori uste baino handiagoa izan da, ordea. "Horrenbeste izango zenik inork ere ez genuen espero".

Otermineren ustez euskal munduan ez da horrelako harrerarik izan duen beste programa bat izan. "Horrez gain, euskal munduan proiektu jakin batek eraman duen diru kopururik handiena Goenkale izan da. Urte asko dira, fikzioa egitea oso garestia da eta produkzio oso serio bat izan da alde guztietatik. Ni seguru nago egunen batean Goenkaleri buruz azterketak egingo direla".

Goenkaleren erronka atzean dagoen jendeak historia berriak sortu eta egokitu beharra da. "Historiak sortzeko gai garen bitartean telesailak jarraituko du".




Urte berri on!

✆ 943 88 49 50
Filipineta, 13 - behea
ORDIZIA

GOI·ETXE s.a.

ORDIZIAN ETA BEASAINEN, KALITATERIK ONENEKO ERAIKUNTZAK:

ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

(1991), 'Goenkale' (1994) eta 'Jaun eta jabe' (1997). Goenkalen hainbat urtetan Joxe Mariren paperean egindako lanarengatik Iparragirre saria jaso zuen 1998an.

Zinean egindako lan guztiak aipatzea ezinezkoa da, baina, hasiera haietan 'Albaniako konkista' eta 'Akelarre'n parte hartu ondoren, 'El polizon de Ulises' (1987), 'El anonimo... Vaya papelon' (1990), 'Maité' (1994), 'Salvate si puedes' (1995), 'Cuestion de suerte' (1996), 'Airbag' (1997) eta 'Si, quiero' (1999) egin zituen besteak beste. Hauen ondoan Andu Lertxundik euskaraz zuzenduriko bi pelikuletan paper garrantzitsuak izan zituen, 'Kareletik' eta 'Hamaseigarrenean aidanez'-en. Lehen horretan egindako 'Balantx' pertsonaiarengatik aktore onenaren saria eman zioten 1987ko Cartagenako Itsasoko Zine Jaialdian.

Antzerkian hainbat lan egin ditu eta berak parte hartutako bi obrek ikusle arrakasta handia izan zuten: 'Ama begira zazu' eta 'El florido pensil'. "Tarrastaka-tarrastaka, beti lortu izan dut nire ogibidea, hasieratik, agian nire adineko aktorerik ez zegoelako izango zen".



*Paralisi moduko bat dela eta azken aldian nahiko trakets dabilela esan zuen arren, Ordiziako Barrenan egin zuten aurkezpenean izan zen Mikel.*

## Gustuko ofizioa

Antzerkia, zinea, telebistaz gain, bikoizketa ere egin du Mikel Garmendiak, baina denen artean ez da bakar bat bereiztera ausartzen. "Nik uste dut antzezle ofizioa gustatu behar dela eta gustatzen bazaizu, medio guztiek dute bere puntu hori. Ni nahiko alperra naiz izatez, eta nire gustuko lana nahi nuen, baina antzeztea niretzat ez da lana izan, entretenimendua izan da eta, gainera, ordaindua. Hori baino zorion handiagorik ez da".

**"Ni nahiko alperra naiz izatez, eta nire gustoko lana nahi nuen, baina antzeztea niretzat ez da lana izan, entretenimendua izan da eta, gainera, ordaindua. Hori baino zorion handiagorik ez dago"**

Bere aktore bizitzan egindako lanetatik bat aukeratzekotan Kareletik filman egindako 'Balantxas' pertsonaia bereizten du. "Andu Lertxundik, zuzendariak, ezetz badio ere hura niretzako espreski egindako pertsonaia da, nire neurrira egindako trajea".





# URDANETA KHAF harategia

**Kalitate hobea! Prezio berean!**



**K**alitateko
**HA**ragi
**F**idagarria




*Gabon zoriontsuak eta Urte Berri on!*

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA



# "Maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago"

Ordiziako Jakintza Ikastolako eta Oianguren Institutuko Batxilergoko ikasleek, euskara gehiago maita eta goza dezaten, Motibazio Saioak burutu dituzte, Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatuta. Gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko helburua dute Motibazio Saioek. Lasarte-Oriako Ttakun elkartearen egitasmoa da berau.



Motibazio Saioen helburu zehatzak bi dira nagusiki. Lehena, hizkuntzen inguruan eta bereziki euskararen inguruan hausnarketa bultzatzea, horrekin hizkuntzarekiko jarrera kontziente bat bilatuz: "oro har, hizkuntzen eta euskararen inguruko informazioa jasotzeak lagundu egiten die ikasleei hizkuntzen funtzionamenduari buruzko hainbat gauza ulertzen eta hori horrela izanda, errazagoa da motibazio kontziente batera iristea".

Metodologia aldetik saio atseginak eta partehartzaileak egiten saiatzen dira Ttakunekoak, eta zenbait gai edo eduki lantzeko diapositibak, talde dinamikak, jolasak eta riketak erabiltzen dituzte. Ttakunekoen esanetan, "gure helburu nagusietako bat gazteen hausnarketa bultzatzea denez, egokia deritzogu beraien partehartzea eskatuko duen eztabaida eta antzeko dinamikak lantzeari. Horren adibide lirateke hiztun tipologiak aztertzeko erabiltzen ditugun pertsonai famatuen irudiak, norberaren ibilbide linguistikoa aztertzeko darabiltzagun ariketak edota girotze jokoak".

## Idiazabalgo Gaztetxeak 4 urte bete ditu

Abenduaren 6tik 11ra bitartean, laugarren urteurreneospatzeko ekitaldiak egin zituzten Idiazabalgo Gaztetxekoek. Hitzaldiak, eskalada, diapositibak, tailerrak, ardo eta pintxo dastatzeak, bertso afaria, herri kirolak, kotxe karabana, kontzertuak, zaku karrera... denetik izan zuten Idiazabalen.

Argazkian, abenduaren 11n egin zuten bazkaria ikus daiteke. Giro onean pasatu zuten Gaztetxekoek eguna.



KEMEN
KIROLAK
Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Zorionak eta Urte Berri on!
Yerlo
ILEAPAINDEGI MISTOA
Joan Iturralde, 5-7 (solairu-artea)
Tfnoa.: 943 16 11 05
BEASAIN

AK
ANDREAK
jantziak - osagaiak
Neurriak: 42tik 60ra
Tel.: 943 16 16 72
Andre Mari, 1
(Udaletxe ondoan)
BEASAIN

# Garikoitz Mujika olaberritarraren liburua:

## *'Gazte Matxinada: inoiz kontatu gabeko historia'*

Xirika gazte kazetak, 'Gazte Matxinada: inoiz kontatu gabeko historia' liburua kaleratu berria du Durangoko azokara begira. Liburuaren idazlea, Olaberriko Garikoitz Mujika da. Bere lehenengo liburua da. Jarrai, Haika eta Segin ibilia, HBeko Mahai Nazionalkidea izana. Gaur egun Segin jarraitzen du lanean.

500 orriko saiakera liburua da. Pasarte sakonak eta arinak tartekatzen ditu. Gaztetxea, irrati libreak, adin nagusitasunaren eztabaida, antimilitarismoa, soldadutzari intsumisioa, errepresioari erantzuna, drogomenpekotasunaren aurkako borroka, musika mugimendua, ikasle borroka, Jarrai, Segi, Gazteriak, Haika, Segi... Egileak, azken 30 urteotako Euskal Herriko gazteen pentsaera islatu nahi izan du.




Hiru informazio iturri erabili ditu Mujikak dokumentazio lanerako: batetik, liburuaren protagonista diren gazte mugimenduen (Egam, Gai, EGG, IT, Jarrai, Patxa, Gazteriak, Haika, Moc-Kem, Kakitzat, gazte asanbladak, irrati libreak, ikasle mugimendua...) barne dokumentuak; bestetik prentsan argitaratutako berriak eta elkarrizketak; eta azkenik, garai ezberdinetan erakunde horietan protagonista izan direnei aurrez-aurreko elkarrizketak.

**30 urteotako Euskal Herriko gazteen pentsaera islatu nahi izan du.**

*Bordatuak eta arropa konponketak*
Labores Otea
*Gurutze-puntua, puntu erdia eta artiletan berezitasuna*
*Gai hauen ikastaroak ere ematen dira*
Oriamendi, 19
☎ 943 16 23 84
BEASAIN
laboresotea@terra.es
www.laboresotea.com

Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

ORKI
Opariak
Arropa osagarriak
*Gabon zoriontsuak!*
Nafarroa Etorbidea, 5
☎ 943 88 10 50
BEASAIN


©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA
AUSOEGI
ERREFORMAK
- Tximini eta egurrezko ekonomikak
- Berogailuak
- Iturgintza
- Zeramika erakusketa
- Bainuko altzariak

# Beasainmendiko Gabon gaueko kantariak



Beasainmendiko laguntalde bat duela 28 urte hasi zen Gabon gauean, baserriz baserri, gabon eskean. Itsasondoko koadrilari erreleboa hartu zioten beasaindarrek. Peio Urretabizkaiak gogoratu du hasiera nola izan zen: "Itsasondoko koadrila bat etortzen zen Beasainmendira. Xabier Zeberio eta bere koadrila esango genukeena, ibiltzen ziren kantari. Aurretik, Beasainmendiko beste koadrilaren bat ere ibiltzen omen zen. Itsasondoko koadrilak utzi egin zuen eta orduan gu, Beasainmendiko koadrila, hasi ginen ateratzen. Oteizabalgo baserrikoak ere gurekin ateratzen hasi ziren. 15 urte inguruko koadrila ginen baina handik 8 bat urtera, helduagoak ere gehitu zitzaizkigun koadrilara".

Hasierako urteetan, arratsaldez ere ateratzen hasi ziren eta Olaberriko eta Aramako baserrietara ere joaten ziren. Gauez, berriz, Beasainmendi eta Itsasondoko baserrietan aritzen ziren. "Baina 15 bat urte izango dira gauez bakarrik egiten hasi ginela, gaueko 11,30ak aldean hasi eta goizeko 7,30ak aldera arte, Itsasondoko Itsasa baserritik hasita. Lehenengotan gida baimenik ez geneukan eta aurreneko hiru urteak oinez egin genituen", dio Urretabizkaiak.

'Oles eta Oles' kopla zaharrak abestu izan dituzte beti, Itsasondoko Zeberiotarrengadik ikasiak. Trikitri eta pandero doinuak ere beti izan dituzte lagun.

## Sukalderaino

Baserrietan ondo hartu izan dituzte, "kontuan izan behar da nahikoa ezgaraietan joan izan garela zenbait baserritara, gaueko 12etan hasi eta goizeko 7,30ak-8ak bitartean aritzen baikinen kantari. Sukalderaino sartzen ginen. Kafea, turroia, purua, kopa... denetik izaten genuen aukeran. Gehienean kafea hartzen genuen eta nik uste horri esker irauten genuela esna".

Bildutako dirua Amnistiaren Aldeko Batzordeetara bideratu izan dute hirugarren urtetik. "Lehenengo bi urteetan afaria egiteko erabili genuen bildutako dirua", dio beasaindarrak.

Gaur egun emakumezkoak ere ateratzen badira ere, hasieran, gizonezkoak bakarrik ateratzen ziren kantuan.

Ordu txikietan makina bat bitxikeria izan ohi da batzuk gogoratu ditu Urretabizkaiak: "marmittatik esnea edan, ahuntza bere lekutik aldatu... nekatuta geundenez Dunker bat hartu eta bertan joan... Baserri batean sukaldea nahikoa airean zeukan eta gu joaten ginenerako, apuntalatu egiten zuten urtero, dantzan ibiltzen baikinen".

## Belaunaldi berria

Orain dela lau urte gazteek hartu zuten erreleboa. Dozena bat lagun elkartzen dira gaueko 12ak aldera,

Oiarbide
Oinetakoak
Eguberri zoriontsuak denoi!
San Inazio, 14 ☎ 943160434 BEASAIN
Laskurain, 12 ☎ 943653786 TOLOSA

GOENAGA
Eguberri zoriontsuak denoi !
AHOLKULARITZA OROKORRA:
laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.
☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59
goenaga@goenaga.com
J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN
GESTORIA:
ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

Beasaingo Foru kaleko Jauregi-enean. Aurretik baserriz baserri erronda egiten dute, gutxigorabehera zein ordutan joango diren jakinarazteko.

Mikel Irastortzak izaten du laguntaldea osatzeko ardura. "Zailena jendea bilatzea da eta gaur egun ibilbidea moztu egin dugu. 4,30-5ak aldera arte aritzen gara. Dozena bat inguru elkartzen gara".

Mikel Irastorza da bi belaunaldien arteko lotura. "Nik neronek 10 bat urte badaramazkit kantari. Erreleboaren lehenengo urtean dozena erdi bat lagun atera ginen. Eta hurrengo urtean ez ginen atera, ez desmoralizatzearren. Denok berriak ginen eta baserrietan harremana ez zen berdina. Aurrekoak denak ezagutzen ziren eta askoz ere harreman beroagoa zuten. Hurrengo urtean, baserriz baserri pasatu ginen aurreko egunetan, ea kantari joatea nahi zuten ala ez galdetu eta zein ordutan pasatuko ginen esatera. Erantzun ona jaso genuen eta ondo hartzen gaituzte baserrietan baina harreman hotzagoa da.".

Belaunaldi berriak koplak zertxobait berritu egin ditu. Baserri bakoitzerako kopla berezi bana jarrita dauka Ekaitz Goikoetxea bertsolariak. Trikitilaria, Dani Oiarbide izaten da.

## 125 urteko koplak

Gaur egun Beasainmendin abesten dituzten Oles ta Oles koplak, Itsasaondoko Zeberiotar bertsolariengandik ikasitakoak dira. Batak eta besteak esandakoaren arabera, 125 bat urte dauzkaten koplak dira.

Oles ta oles etxekotxuak
Guk jotzen dittu ateak
Guk jotzen dittu ateak eta
Erantzun ona jendeak

Ohitura za(ha)rrak mantendu asmoz
Kantuz gatoz zuengana
Gazteak garen arren itxuraz
Egin nahi genuke lana

Adan da Ebak egin zutean
paradisuan pekatu
Gure lan eta neke guztiak
Ordundik dira gertatu

Jaun zerukoak berehalaxe
Ordundik zuen pentsatu
Belenen zegon estalpe baten
eman zioten ostatu

Estalpe pobre horretan zeuden
Jesus Maria ta Jose
Gure munduaren ejenplurako
Erak nahi zuten halaxe
Arboletan ederrena
Degu astigarrarena

Nere lagunak lagun dirala
Hasitzen zaizkit tentatzen
Hasiko banaiz hasi nadilla
Nagusi jauna koplatzen

Etxe hontako nagusi jaunak
Urre gorrizko bizarra
Urre gorrizko bizarra eta
Diamantezko sorbalda

Etxekoandrea kopla dezagun
Nagusiaren hurrena
Etxe hontako etxekoandreak
Hamabi gona sedazko
Hamabi gona sedazko eta
Zillar mantoia berria

Etxekoandre zabala
Etxe honeko alaba
Bidean gatoz informaturik
Limoslaria zerala

Maiorazgoa kopla dezagun
etxekoandren hurrena
etxe hontako maiorazgoak
hamabi urre txintxarri
hamabi urre txintxarrirekin
zazpi damaren eguzki
bailara hontako neska guztiak
bere atzetik dabizki

Dama gaztea kopla dezagun
maiorazgoaren hurrena
Etxe hontako dama gazteak
hai zer kolore gorria
zure masaila iruditzen zait
krabeliñaren orria

Krabeliñaren orria eta
larrosa maiatzekua
zuri begira jarria nago
damatxo bihotzekua

Etxe berri bat egingo nuke
zu neretzako bazina
leku berean topatzen dira
nere nahia ta ezina

Mendirik mendi lainoa
basorik baso usua
eder zeruan izarra
erreka ondoan lizarra
errekan dago igela
presku preskua gibela
gu hemendikan bagoaz eta
gabon jainkoak diela


JATETXEA
MANDUBIKO BENTA
Tel. 943 88 26 73

JATETXEA

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr.
- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.
R.P.S. 213/97 BEASAIN

# Etorkinentzako eskuko hiztegia banatzen hasi da Ordiziako udala




Ordizian erroldatzen diren etorkinei hiztegitxo bat jarriko die eskura Ordiziako Udaleko euskara zerbitzuak. Euskaratik zazpi hizkuntzatara itzulia dago hiztegia: gaztelera, ingelera, frantsesa, portugesa, katalana, galegoa, errumaniera eta bereberera. Gure hizkuntzan errazak izan daitezkeen zenbait hitz jasotzen ditu hiztegiak, etorkinek berenganatu eta erabiltzera ausar daitezen.

Oinarri-oinarrizko komunikazioa burutu ahal izateko hitzak, egunero erabiltzen diren 200 bat hitz jasotzen ditu eskuko hiztegiak, hainbat ataletan banatuta: agurrak, denborazko hitzak, norabidezko hitzak, ohiko hitzak, garraioak, pertsonak, jateko eta edatekoak, egunak, zenbakiak, etxeko gauzak, lekuak, diru kontuak, sorlekuak eta komunikatzeko euskarriak.

Azken bi urteotan Ordiziara etorri diren etorkinei postaz bidali die jada hiztegia Euskara zerbitzuak; guztira, 100en bat biztanleri. Hemendik aurrera, berriz, Bulego Nagusian bertan jasoko dute etorkinek hiztegitxoa, Udalean erroldatzen diren unean bertan.

## Goierriko hainbat udal

Ordiziako Udalak ez ezik, Goierriko beste hainbat Udalek ere banatuko dute hiztegia iritsi berrien artean, Goieki Goierriko Garapen Agentziaren laguntzarekin argitaratu baitute.

Euskaratik zazpi hizkuntzetara moldatutako hiztegi horrek honelaxe dio agurrean: "Euskarak hiztun premia gorria du. Gure hizkuntzak inor ez du arrotz. Hemen denok gara etorkin: batzuk duela hamar mende heldu ginen. Bi minutu dira beste batzuk iritsi garela. Beste asko, berriz, bidean gatoz oraindik. Ongi etorri denok!".

## Ongi etorria eta laguntza

Hiztegiarekin batera gutun bat ere jasoko dute aurrerantzean Ordiziara datozen etorkinek. Gutunean, herriko biztanleon partez, ongi etorria ematen die Alejandra Iturrioz alkateak, bai eta laguntza eskaini ere. "Euskaldunok badakigu zer den etorkin izatea eta horrek dakartzan zailtasunak. Gure arbaso askok Europako eta Ameriketako herrialdeetara joan behar izan zuten gutxieneko bizitza maila bat eskuratzeko, eta horretarako zailtasun ugari gainditu behar izan zituzten. Haietatik batzuk, han gelditzea erabaki zuten, baita bertan integratzea eta beren bizitza antolatzea ere. Horrexegatik, orain guri dagokigu eskuzabal izatea zuekin, guregana etorri zaretenokin", irakur liteke gutunean, hitzez hitz.

Euskarak gure herrian bizi duen egoeraren erakusle, datu xume batzuk aurreratzen zaizkie iritsi berriei aipatu gutunean: besteak beste esaten zaie herritarren %70-80 bitartean euskalduna dela, legearen ikuspuntutik euskara hizkuntza ofiziala dela gure herrian, euskarazko ikasteredua (D eredua) bakarra dela Goierriko eta Ordiziako ikastetxeetan...

Gainera, euskararen berreskuratze prozesuaren ardatza gizartea bera denez, euskara ikastera animatzen ditu Euskara Zerbitzuak bai guraso etorkinak, bai horien seme-alabak. Honakoa argudiatuta: "Elkarri mesede handia egingo diogu: euskararen bidez zuek hemengo kultura eta ohiturak hobeki ulertu eta zuenganatuko dituzue eta guk, aldi berean, zuenak ere hobeki ezagutuko ditugu. Bide batez, guri, bertako erakunde eta herritarroi, euskara berreskuratzen eta normalizatzen lagunduko diguzue".

Amaieran, Udaleko Euskara Zerbitzuaren, AEK Euskaltegiaren eta Hitzaro Euskara Elkartearen telefono zenbakiak luzatzen zaizkie etorkinei, eta horietan euskara ikasteko diru-laguntzen berri, euskara ikasteko eskolen berri, edota 12 urtez azpikoen aisialdiaren berri lortuko dutela argitzen zaie.

MUGAR
K21 KALITATEA
ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENAK
aberiak, atezain automatikoak, TB antenak, pabiloiak, dendak, prokiektuak, berrikuntzak orokorrean...
E-mail: mugar@mugar.net
web-gunea: www.mugar.net
Euskal Pilota, 4 ☎ : 943 160 240 ORDIZIA
San Inazio, 8 ☎ : 943 888 907 BEASAIN
Faxa: 943 888 688

oskarbi
oinetakoak



Tel. 943 88 41 04
Kale Nagusia 34
BEASAIN
Tel. 943 88 19 44
Kale Nagusia 34
ORDIZIA
Tel. 943 72 19 58
Sekundino Esnaola, 8
ZUMARRAGA

# HITZ GEZIDUNAK



Zuri, dut
Ezin da higitu
Libanokoa
Artaziak
Burruntzali
Etorki-zunean
Etikari dagokiona
AEBetako estatua
Azkenekoa eta lehenengoa
*** DEITURA
Ginebraren laburdura
Iparraldean, ijitoa
Puritanismo zale
Desirak, irrikak
Palestinako hiria
Temati
Ingelesez, bero
Zintzo
Leku hartan
Amerikako osaba hura
Jupiterren satelitea
Interjekzioa
O birritan
Abantzu, kasik
Bokala
*** IZENA
Bizkaieraz, itsusi
Musika nota
999
Neka, aki
Maltako hizkuntza
Aretoa
Ukapen
Idi, hitz elkarketan
Ez eme
Iodoa
Emakume izena
Sufrea
Bokal errepikatua
Ikastaldi

*** Bertsolaria

ARRIETA
JATETXEA
Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...
era guztietako ospakizunak
☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

ondoeta
ondoeta
GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK
E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
✆ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA


Iñausti
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

# HITZ GURUTZATUAK



**EZKER ESKUIN**: 1.- Herri hizkeran, zer. Goierriko herria. 2.- Edateko. Erne! 3.- Alkohol edari. Zikin, lohi. 4.- Lehenengo bokala. Astro. Sodioaren ikur kimikoa. 5.- Ez du ikusten. Mezu, jakinarazpen. 6.- Nafarroako ibilgailu zaharretan. Enara. Bokala. 7.- Luzera neurria. Eginkizun, betebehar. 8.- Deialdi. Izana. 9.- Sailak. Euskal deklinabidearen ergatiko kasuaren atzizkia.

**GOITIK BEHERA**: 1.- Goierriko herria. Dago. 2.- Ala. Hesola. 3.- Landare usaintsu. Gipuzkoako herria. 4.- Lera hitzaren kontsonanteak. Zeukan. Berrogeita hamar, zenbaki erromatarren arabera. 5.- Guraso arra. Zelaia. 6.- Kontsonantea. Zoroa. Kontsonante errepikatua. 7.- Nasa, moila. Hilabetea. 8.- Gipuzkoako herria. Emakume izena. 9.- Interjekzioa. Pluralean, aranondoaren fruta.

# HIZKI ZOPA

Aurki itzazu Hizki Zopa honetan gure eskualdeko zortzi bertsolariren deiturak.
Deitura hauek norabide guztietan aurkezten zaizkizu.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | G | A | H | Z | I | L | A | R | O |
| H | O | M | I | U | B | I | D | I | Z |
| Z | I | H | U | G | O | R | I | G | A |
| I | K | A | L | O | S | A | R | A | S |
| A | O | P | O | L | O | K | A | P | S |
| M | E | N | D | I | Z | A | B | A | L |
| E | T | A | N | O | E | U | R | L | E |
| N | X | A | L | S | O | R | A | A | B |
| D | E | U | A | O | I | U | T | T | I |
| I | A | T | A | E | A | M | S | E | L |
| Z | I | O | G | Z | T | R | E | G | M |
| G | O | I | B | U | R | U | I | I | E |


Ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

GABINETE PSIKOLOGIKOA ARPE
Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687
Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk BEASAIN
Depresioak
Harremanetarako arazoak
Beldurrak
Antsiak
Segurtasun eza

IBAI ONDO
AROZTEGIA
Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea
Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Aseguru korreduria
SEGURUEN PROFESIONALAK
MUNDUATE
Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

# Eguberri zoriontsuak guztioi!







**ETXEBE**
**TABERNA**
Zaldizurreta kalea
**BEASAIN**




**BARANDIARAN** *Taberna*

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

J.M. Iturrioz, 7
☎ 943 88 92 10
BEASAIN

**NAGASAKI**
**Taberna**
*Sartu zure giroan!*
☎ 943 88 15 67 J. M. Iturrioz BEASAIN

**ARRANO**
**TABERNA**
**Pintxo eta ogitartekoak**
Eguerrietan ere preso eta iheslariak gogoan
**Nagusia, 12 BEASAIN**

**LOINATZ**
**Taberna - Jatetxea**
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak
☎ 943 88 20 07 Nagusia, 27 BEASAIN

*Basakana*
Giro alaia eta Pintxo goxoak
Iturriotz, 11 beasain

*Edaritegia* *Jar* *Kafetegia*
**Nafarroa Etorbidea, 27** ☎ **943 88 86 81**
**BEASAIN**

**KULUSKA**
**LURRAZPIKO JAIA !!**
**ARANA, 1**
☎ **943 88 93 88**
**BEASAIN**

**PUB**
**ASTI**
Zaldizurreta kalea ☎ 943 88 45 06 BEASAIN

# HITZ GEZIDUNAK



Pl., ahariaren emea
Azalpena
Barne asaldua
*** DEITURA
*** IZENA
Baieztatzeko
Belaunak lurrean jarrita
Daukat
Urrea
Zuloak egiteko tresna
Z birritan
Goierriko herria
Gipuzkoako herria
Zorrotada
Erregai beltza
Hesola
Kontsonantea
365 eguneko epea
Utik!, ospa!
Iodoa
Nor atzizkia
Hitzez adierazi
Aingerua
Nitrogenoa
Bare, lasai
Igarobide
Iparretarrak
Urtaro beroa
Kanpo, landa
Lanbide
499
Biziaren erdian
Aldaketa
500
Bizkaieraz, dut
1
Nazional-sozialista
Gipuzkoako herria
Bokala

*** Aktorea




**OTEÑE ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabean

Larraitz bidea GAINTZA
☎ 943 88 98 48

**ANZIZAR, S. A.**

LAND ROVER



**Autoen salmenta**
**Mekanika eta elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

**ZUZENKI**
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta:zuzenki@euskalnet .net
Elosegi, 16 LAZKAO

e txekin

# KATE HITZAK



**8 hizki**
Biztanle
Iraultza

**9 hizki**
Legorreta

**7 hizki**
Burutua
Erantzi
Erregua
Gaztela
Hautatu
Osasuna

**6 hizki**
Bestea
Datila
Edoski
Igorri
Okasio
Txerri
Urtsua

**5 hizki**
Aditz
Ahabi
Artez
Bitsa
Gizon
Laxoa
Laztu
Tarot
Zabor
Zozoa

**4 hizki**
Diot
Hats
Neke
Okin
Rona
Tona
Tori

# HIZKI ZOPA

Aurki itzazu Hizki Zopa honetan Beasaingo zortzi auzoren izenak.
Izen hauek norabide guztietan aurkezten zaizkizu.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | G | T | N | E | M | I | E | H | E |
| G | N | A | R | A | I | R | R | A | Z |
| U | I | Z | R | U | R | R | S | T | E |
| D | L | O | I | I | B | E | T | E | A |
| U | T | A | K | I | N | E | R | R | I |
| G | O | E | R | P | U | Z | A | R | E |
| A | T | N | E | M | I | X | T | A | M |
| R | U | R | G | D | I | E | L | G | A |
| R | E | O | R | M | E | K | U | I | A |
| E | R | A | U | S | K | I | N | T | U |
| T | I | M | A | O | L | G | O | S | T |
| A | E | R | O | T | A | B | L | A | S |


Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGAIAK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN S.L.
Jose Agustin Jauregi
Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

zuhaizki S.A.
Zurgindegia
Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrira.


JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ
Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

ASEPLAN S.L.
AHOLKKULARITZA - ENPRESAK
KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA
e txekin
Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

# HITZ GEZIDUNAK



Irudi geometriko
***
DEITURA

Mesopotamiako inperio
Adar kolpeak

Biba!
***
IZENA

Ukatzeko
Jainko egiptoarra

Altzari mota

Esanahia
Bokala

Röntgen
Ez eme

Altzoak
Euskal sindikatua

Bitsa
Jakingo balu

Amerizioa
Ur ugari duena

Ipar Amerikako lakua
Kasik

H2O
Beldurtu

Gizon izena
Gazte ederra

Iridioa
Barazki lekadun

1
Interjekzioa

Zangoaren atal
Bizkaiko ibaia

Egile atzizkia
Kolore militar

Odol guztia galdu
999

Akabatu, hil
Bokala

Bokala
Potasioa

Kimika dute lanbide

*** Idazlea

kutxa
gizarte ekintza

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak
Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

UNTXUNDEI garajea
OSINALDE karrozategia
☎ 943 88 28 21 ☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI




Kursal
ZENTRO MEDIKUA
943 88 22 51
Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN




- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

R.P.S.:32/04



Teilatuen egiturak
Portxeak
Aleroak
Balkoiak
Eskailerak
eta abar




Gurutze errepidea

ARRONDO GABIRIA

☎ 943 88 59 50 - 943 88 59 54

Zoruak eta egurrezko egiturak
Merkatuko aukera osoa
Egin eta jarri egiten ditugu

# HITZ GURUTZATUAK

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | | ■ | | | | |
| 2 | | | | ■ | | | | | |
| 3 | | | ■ | | | | ■ | | |
| 4 | | | | | | | | ■ | |
| 5 | ■ | | | | ■ | | | | ■ |
| 6 | | ■ | | | | | | | |
| 7 | | | ■ | | | | ■ | | |
| 8 | | | | | | ■ | | | |
| 9 | | | | | ■ | | | | |

**EZKER ESKUIN**: 1.- Karrika. Moduak. 2.- Juntagailua. Ohean, burua bertan jartzeko ipintzen den zaku moduko atal zapal eta bigun. 3.- Atzizkia. Irlandako itsasoko uhartea. Iparretarrak. 4.- Araupetua. Huts. 5.- Lehenengo Nazioartekoa. Nasa. 6.- Kontsonantea. Aitortzaile. 7.- Ukatzeko. Bizkaiko ibaia. Utik! 8.- Buru apaingarria. Emakume izena. 9.- Azalera neurria. Eduki.

**GOITIK BEHERA**: 1.- Gizon izena. Barazki lekaduna. 2.- Irten, jalgi. Kitatzeke dago. 3.- Musika nota. Gipuzkoako herria. Musika nota. 4.- Bokala. Goierriko herria. 5.- Bi ken bat. Infusio mota. 6.- Gizon zikiratua. Iodoaren ikur kimikoa. 7.- Kontsonante bikoitza. Suitzako ibaia. lehenengoa eta azkenekoa. 8.- Una, neka. Beltza. 9.- Tropikoko fruta mota. Moztu.

# HIZKI ZOPA

Aurki itzazu Hizki Zopa honetan Aizkorri mendialdeko 8 tontorren izenak. Izen hauek norabide guztietan aurkezten zaizkizu.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | I | T | I | G | E | T | E | K | A |
| G | A | L | D | U | K | I | M | E | R |
| I | R | U | N | H | L | A | U | K | B |
| A | T | Z | A | P | I | R | Z | E | E |
| E | Z | Z | I | T | A | O | T | A | L |
| E | A | I | T | X | U | R | I | S | A |
| A | N | N | I | O | I | Z | A | O | I |
| U | B | A | G | A | K | G | L | T | T |
| T | U | R | I | O | I | Z | A | L | Z |
| R | R | O | R | T | A | A | B | A | L |
| O | U | R | T | U | Z | K | A | I | B |
| Z | I | A | E | M | O | G | Z | U | R |


Autowag

Audi

☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Jauregi
TOLDOAK





INSTALATZAILE OFIZIALA
llaza LLAZAPLUS ZENTROA
T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

MUJIKA 19
MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA


JOS-BEL
ILEAPAINDEGIA
✆ 943 88 82 52
Urdaneta, 15
ORDIZIA
ANNE MÖLLER
TRAITEMENT SUISSE
kosmetika
bisuteria
concha blanch
zapiak


Lan bertikalak S.L.
Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN
Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak
...

# HITZ GEZIDUNAK



Pl., zefalopodo mota
Primate ez hominidoak
Emaitza
Beldur
Niri
Marruskatu
Iragan gauean
Tximino handi
Pluralean, suari dariona
*** DEITURA
Beltza
Ibilbidea
Oinak baliatuz aurreratu
Zuhaixka mota
*** IZENA
Ate, hitz elkarketan
5. eta 2. bokalak
Gipuzkoako hiria
Jainko egiptoarra
Potasioa
Iodoa
Alberto ..., mendizalea
Mapa
Hormako irekiunea
Kontsonantea
Txinako iraultzailea
Uranioa
Banu, eta hari ba...
Boroa
Arrazoi
Gauza, gai
Gaixo
Hitz egin!
Idi, hitz elkarketan
Gipuzkoako herria
Huts
Trebe, abil
Kontsonantea
Bokala
Zortzi aldeko poligonoa

*** Sukaldaria




izal
☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño baserria
IMAZ eta CONTRERAS
IDIAZABAL
PINTURA eta PAPERGINTZA

RENAULT
LAZKAO GARAJEA
Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala
Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
Filtroak, olioa, engrasea
Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak




Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

IÑAKI ARIN
Aseguruak
GENERALI
☎ 943 888 702
Oriako Pasealekua,20
B E A S A I N

# KATE HITZAK



**8 hizki**
Abagunea
Bilbotar

**9 hizki**
Itsasondo

**7 hizki**
Adatsak
Emakume
Erronka
Eztanda
Lagunak
Orrazia

**6 hizki**
Ahalke
Amestu
Atorra
Banana
Beldar
Betile
Lezama

**5 hizki**
Abere
Aizak
Izaki
Izutu
Kiloa
Loria
Orein
Tokia
Zatoz
Zotza

**4 hizki**
Ezak
Ilar
Kuku
Lezo
Meta
Mina
Okin

# HIZKI ZOPA

Aurki itzazu Hizki Zopa honetan gure eskualdeko zortzi txirrindulari profesional edo profesional ohiren izenak. Izen hauek norabide guztietan aurkezten zaizkizu.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | K | I | O | L | U | A | T | S | O |
| G | A | L | P | A | R | S | O | R | O |
| A | I | L | A | S | I | C | A | A | P |
| Z | D | I | D | O | N | A | I | R | A |
| T | E | R | E | A | I | D | Ñ | A | L |
| A | N | T | T | P | N | A | U | O | A |
| Ñ | A | X | A | E | R | O | T | Z | C |
| A | P | E | M | R | A | U | N | D | I |
| G | O | R | A | E | A | Z | U | D | N |
| A | A | U | H | Z | U | K | A | P | O |
| G | I | J | U | M | A | L | Z | U | T |
| I | C | N | M | U | J | I | K | A | U |


**ZEGAMA OKINDEGIA**
*Eskuz egindako ogi naturala*

**SALMENTA PUNTUAK:**
**Beasain:** Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

☎ **943 80 10 66** **Intxausti eremua, 14G-14H nabeak** **ZEGAMA**

**mazda**
**Bikar, S. A.**
☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



**ikaskide**
irakaskuntza zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

**2004-2005 IKASTURTEA**

BERRIA!

**ESKOLA LAGUNTZA**
✔ Lehen Hezkuntza
✔ DBH, Batxilergoa
✔ Moduluak, Zikloak
✔ Unibertsitate maila
✔ Talde txikiak

**INFORMATIKA-GELA**
✔ Ikastaroak
• Ingelera
• Word, acces, excel
• mekanografia
✔ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

# HITZ GEZIDUNAK



- Igoera
- Ahalegina
- Zintzo
- Joan den urtean
- Zubereraz, antxume
- Donostiako auzoa
- Gipuzkoako herria
- Ofizial turkiar
- Auzia
- Joan aditzaren erroa
- Berandu-ago
- Bizkaieraz, legar
- Pl., arrain mota
- Gastatua
- *** IZENA
- *** DEITURA
- Margo
- Baita
- Trebea
- Izenaren aurrean
- Musika nota
- Sasoi onekoa
- Pilota handiak
- Txinako iraultzailea
- Oihan
- Lau zati bi
- Norat atzizkia
- Bokala
- Begirada
- Harrapa ezak!
- Egurra
- Arabako harana
- Landa
- Sufrea
- Indioa
- Nor atzizkia
- Egokiera
- Kontso-nantea
- Aezkoakoa
- Pluralean, mila kilo

*** Txirrindularia


Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA






ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble ajentzia

e txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxa: 943 88 90 17



SIGLO XX HARATEGIA

Lukusin enparantza, 6

943 08 51 61

ORDIZIA

GABONETAKO MENU BEREZIAK ENKARGUZ

Mariskoa
Txangurro betea
Marisko salpikoia
Marisko krema

Fritoak
Urdaiazpikoz betetako esparragoak
Ontto pudina

Txangurroa
Porru eta ganbak
Onttoen Voulabena

Ohizko platerak eta zuk eskatutako beste edozer

MIRENTXU

Gabon zoriontsuak denoi!

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO APAINGARRIAK
- OPARIAK

MONT BLANC





Kale Nagusia, 1 ☎ 943 88 14 57

Nafarroa Etorbidea, 7 ☎ 943 88 04 55

BEASAIN

OPARIAK EGITEKO HAINBAT AUKERA
PAISAIA ZORAGARRIAK, PUZZLEAK, EGUTEGIAK
ALBUNAK, MARKO PAREGABEAK,ARGAZKI, KAMERAK ...
ARGAZKI DIGITALAK ERREBELATZEKO BEZEROENTZAT
ZERBITZU ZUZENA, NAHI IZANEZ GERO CD-ra
PASATU, AUKERATU ETA ESKARIA EGIN.
GUZTI HAU ETA GEHIAGO ERE BAI.
( Haur,famili edo eta bikoteen estudioak),
ezkontzak, argazki zaharren konponketak,
oroigarriak,montajeak...inguratu eta informatu.
URTE BERRI ON GUZTIOI!!






FOTO IBILTARIA Elkano 8 ORDIZIA.
TELEF: 943-162264

ARGI
OPTIKA

abendua04 zorionak eta eguberri on



Nafarroa Etorbidea, 14 _ T/F 943 883 110 _ 20200 Beasain

# LABIRINTOA

Zer bide egin behar du gure aizkolariak enborraraino heltzeko?



# EZBERDINTASUNAK

6 alde edo ezberdintasun daude itxuraz berdinak diren marrazki bi hauen artean. Aurki itzazu!






IÑAUSTI
KARROZERIA
N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
© 943 88 43 01

PSIKOLOGI KLINIKOA
APG
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Zorionak eta Urte Berri on!
Gaztelu
Iturgintza
Berogintza
Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA
Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN

Jabekideen komunitatea osatzea
Komunitateen kontabilitatea
Akten idazketa
Aurrekontuen eskaera
Aholkularitza legala
24 orduko asistentzia
e.a.
AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486




Berehala Santa Maria kaleko 22ra goaz

**FOTO ORDIZIA**

ARGAZKI DENDA **EXPRESS COLOR**

DOMINGO UNANUE, 1 TELEFONO 943 889325
20.240 ORDIZIA FAX 943 085035

OPTIJET TINTA KARTUTXOAK
INJET INPRIMAGAILUENTZAT
% 100 KONPATIBLEAK



**ESKAINTZAK**

SONY P43 + 128MB TXARTELA
**238,00 euro**

SONY P73 + 128MB TXARTELA
**288,00 euro**

SONY P93 + 128MB TXARTELA
**338,00 euro**



BIDEO DIGITALA ARGAZKI DIGITALA IRRATIAK-DISKMANAK-SOINUA

**SONY BANATZAILE OFIZIALA**

ZURE BIDEOAK DVDn JARTZEN DITUGU
VHStik,VHS-Ctik,8mmtik,Hi8tik,MINIDVtik
BIDEO-KOPIAK ERE EGITEN DITUGU

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**




KIOSKO DIGITAL
BERRIA
ZURE ARGAZKIAK
MOMENTUAN
TXARTELETIK, CD-tik EDO
MUGIKORRETIK



**Beasain 1974an**

Beasainen 1974an ateratako argazkian Totxok + Kinkik futbol taldekoak ageri dira

**Zutik ezkerretik eskuinera:** 'Manuelon' Osinalde, J.I. Arrizabalaga, Jose E. Sarriegi, 'Txino' Jauregi, Xanti Enparantza eta J.M. Irizar.

**Pikotxean:** J.M. Telleria 'Baterias', Karlos Argiñano, Fede Ugarte, 'Txiflo', J.M. Iabar eta J.A. Fernandez 'Rubio'

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390
Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327
San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak

USTETSU

Mertzeria: joste-lanak, abalorioak, esku-lanak, etxeko arropa, ahurrak, ehunak...

Josteko makinen salmenta eta konponketa

Linue Zegamako artisau ehungintza

Bordatu eta konponketak egiten ditugu.

Tel.: 943 085 116 Esteban Lasa, 3 BEASAIN




✆ 943 88 40 56
J.M. Iturrioz, z/g
BEASAIN

✆ 943 65 55 77
Nafarroa Etorb., 10
TOLOSA

apaindura-pinturak • apaindurak •eskulanak

**SILVIAMIRASCASASAYAS**
ODONTOLOGOA

SILVIAMIRASCASASAYAS

ODONTOLOGOA



Urtebete egin dugu gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi aurreratuenak zure esku** jarriz, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **inplantologi, estetika edota zirugi mailan.**

**Erabateko hortz klinika integratua.**

# SMC

## ERABATEKO HORTZ KLINIKA INTEGRATUA

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT ERABAT EGOKITUAK DAUDE , KLINIKAK SAN INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK





Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



**TEL./FAX: 943 88 92 87**
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)